



# ESKUBALOI HIZTEGIA



Zkia.	GAZTELANIAZ	EUSKARAZ	DEFINIZIOA
1	anotador, secretario	ohar-hartzaile, idazkari	Arbitroen laguntzailea; partidaren akta egiteaz, partidaren parte hartuko duten jokalarien zerrenda egiaztatzeaz eta jokalaria jokalekuan nola sartzen diren kontrolatzeaz arduratzen da.
2	apoyo, cobertura, ayuda	laguntzaile, euskarri	1. (Defentsan). Defentsako akatsen bat gertatzen den kasuan, modu erabakigarrian aritzeko moduan dagoen taldekide baten prebentziozko egoera. 2. (Erasoan). Baloia daraman jokalaria aurretik nahiz atzetik, desmarkatua dagoen taldekide baten egoera, baloia hari pasatzeko modua eskaintzen duelarik.
3	árbitro	arbitro, epaile	Jokalarien portaera jokalekuan sartzen direnetik kanpora ateratzen diren arte epaitzen eta jokoaren arauak betearazten dituen pertsona. Eskubaloian bi arbitro aritzen dira aldi berean lanean.
4	árbitro internacional	nazioarteko arbitro	Nazioarteko txapelketak epaitzeko edota nazioarteko lehiaketetan jokatzeko diren partidak arbitratzeko gaitasuna duen arbitroa.
5	área de golpe franco	jaurtiketa libreko eremu, jaurtiketa libreko area	Ate-eremuko marraren eta jaurtiketa libreko marraren artean dagoen eremua.
6	ayudante de entrenador, segundo entrenador	entrenatzaile laguntzaile, bigarren entrenatzaile	Entrenatzaileari partidetan eta, batez ere, entrenamenduetan, zuzendaritza-lanetan laguntzen dion teknikaria. Inoiz, haren ordezkokoak egiteko ardura izaten du.
7	cambio de campo	jokaleku-aldaketa, jokalekuz aldatze	Bigarren denbora-erdia hasi baino lehenago, taldeak jokalekuaren alde batetik bestera pasatzea, hau da, lehen defendatzen ari ziren aldetik alde horri erasotzera pasatzea.
8	cambios ataque-defensa	eraso-defentsa aldaketak	Defentsako edo erasoko lanerako espezifikokoak diren jokalaria beren postuak hartzeko jokalekura irteten diren joko-egoera.
9	campo de juego, pista de juego, terreno de juego	jokaleku	Joko-eremu angeluzuzena, 40 x 20 m-koa.
10	central	erdiko jokalaria, erdiko	3-3 eraso-sistema batean, lehenengo eraso-lerroaren erdian jartzen den jokalaria; normalean bera izaten da joko-zuzendaria, eta jokoari erritmoa eta bizitasuna emanez, joko guztia bideratzeko ardura izaten duena.
11	cronometrador	kronometratzaile	Arbitroen laguntzaile bat; partidaren iraupena kontrolatzea izaten da haren ardura nagusia, eta batzuetan, jokalariek kanpoan egon behar duten denbora eta aldaketak kontrolatzea, partidaren parte hartzen duten jokalarien zerrenda kontuan hartzea, etab.
12	cruce	gurutzatze	Talde-prozedura taktikoa: jokalaria baten aurkari zuzena jokalaria horren taldekide batek berarekin eramanda sortzen duen espazioa betetzen du aurkari zuzenik gabe geratu den jokalaria eta, hala, bi jokalaria kokalekuak aldatzen dituzten elkarren artean.
13	defensa en presión, pressing	presio-defentsa, pressing defentsa	Erasotzaile-kopuru jakin bat beste jokalaria-kopuru berdinarekin zorrotz markaraziz antolatzen den defentsako joko-sistema.
14	defensa individual, marcaje individual	banan-banako defentsa, buruz buruko defentsa	Zonakakoa ez den defentsa-sistema; defendatzaile bakoitza erasotzaile batez arduratzen da, ez, ordea, eremu edo zona jakin batez.
15	defensa mixta	defentsa misto	Bi defentsa-sistema elkarrekin konbinatuz antolatzen den joko-sistema, hau da, beste taldeko jokalaririk arriskutsuenei banan-banako defentsa eginez eta gainerakoekin zonakako defentsa eginez eratzen dena.



# ESKUBALOI HIZTEGIA



Zkia.	GAZTELANIAZ	EUSKARAZ	DEFINIZIOA
16	delegado de campo	kantxako ordezkari, pistako ordezkari	Eskubaloi-talde baten ordezkaria; partidaren zehar gerta litezkeen gorabeheren erantzulea izaten da arbitroen aurrean.
17	delegado de equipo	taldearen ordezkari	Taldeak izendatzen duen jokalaria, taldea ordezkatzeko arbitroen aurrean eta, bide batez, taldearen eta lehiaketa-antolatzaileen arteko lotura egiteko.
18	delegado federativo	federazioaren ordezkari	Federazioak jartzen duen ordezkaria; bere ardura da dokumentazio ofiziala jaso, instalazioak ikuskatu, parte hartu behar duten jokalariei buruzko azken erabakia hartu, partida ikusi, arazo teknikoak konpondu, federazioari partidaren emaitza jakinarazi eta idatzizko txosten bat egitea.
19	dirección del lanzamiento	jaurtiketaren norabide	Baloiak jaurtiketa batean jarraitzen duen bidea.
20	dobles	dobleak, bikoitzak, bi ukituko falta	Jaurtiketa libre batekin zigortzen den falta; jokalaria batek, nahita, baloia bi aldiz jarraian ukitzen duelako ezartzen da, hau da, ukitu batetik bestera baloia lurrik, aterik, beste jokalariren bat edo arbitroa jotzen ez duelako.
21	elección de campo	jokalekua aukeratzeko	Jokalekuaren bi aldeetako batean jokatzen hasteko aukera-eskubidea, kapitainen artean egindako zozketa bidez erabakitzen dena.
22	entrenador	entrenatzaile	Bai partidetan eta bai entrenamenduetan taldea zuzentzen duen kirol-teknikaria, taldearen zazpiko titularra eta ordezkoren zerrenda izendatzeko ardura izaten duena.
23	estar en inferioridad numérica, desventaja numérica	kopuruz gutxiago izan	Jokalaria-talde batek besteak baino jokalaria gutxiagorekin jokatzea, gehienetan jokalariren bat kanpora bidali edo kanpoan utzi dutelako.
24	estar en superioridad numérica, ventaja numérica	kopuruz gehiago izan, kopuruz nagusi izan	Jokalaria-talde batek besteak baino jokalaria gehiagorekin jokatzea, beste talde horretako jokalariren bat kanpora bidali edo kanpoan utzi dutelako.
25	extremo	hegaleko	3-3 eraso-sisteman, erasoko bigarren lerroko bi alboetan jartzen diren jokalarietako bakoitza; bata eskuinean kokatzen da, eta bestea ezkerrean. Defendatzaileen artean hutsuneak sorraraztea, jokaldi taktikoak jaurtiketa batekin errematatzea eta, batzuetan, albokoan laguntzaile gisa jokatzea izaten da haren egitekoa.
26	finta de lanzamiento	jaurtitze-iskin, jaurtiketa-iskin	Jokalaria batek doi-doi baloia jaurtitzeko unean egiten duen iskin edo keinua. Iskin-mota honetan, iskin-egilea saiatuko da aurkaria jaurtiketa-keinu baten bidez engainatzen eta, jarraian, engainu hori aprobetxatzeko ekintza izan daiteke pase bat, lekualdatze bat edo baita jaurtiketa bat ere.
27	finta de pase	pase-iskin	Jokalaria batek doi-doi pase bat egiteko unean egiten duen iskin edo keinua. Iskin-mota honetan, iskin-egilea saiatuko da aurkaria pase-keinu baten bidez engainatzen eta, jarraian, engainu hori aprobetxatzeko ekintza izan daiteke pase bat, lekualdatze bat edo baita jaurtiketa bat ere.
28	fintar	iskin egin, keinu egin	Baloia duen erasoko jokalaria aurkaria gaingaitzen saiatzea, lehenik ziria sartu edo engainatzeko asmoarekin keinu bat eginez eta, ondoren, ziria baliatzeko beste ekintza bat burutuz.
29	golpe franco	jaurtiketa libre	Araua hautsi duen taldeari ezartzen zaion zigor teknikoak. Jaurtiketa librea, arau-haustea gertatu den lekutik beretik gauzatu behar da, pase edo jaurtiketa baten bidez; arau-hauste hori atearen eta 9 m-ko marraren tartean egiten denean, berriz, leku horretatik gertuen geratzen den 9 m-ko lerroaren puntutik botako da falta.



# ESKUBALOI HIZTEGIA



Zkia.	GAZTELANIAZ	EUSKARAZ	DEFINIZIOA
30	juego pasivo	joko geldo, joko pasibo	Talde batek, denbora galtzeagatik, baloia jokatu gabe edota erasotzeko nahiz jaurtitzeko inolako asmo garbirik erakutsi gabe, baloia bere eskuetan edukitzea.
31	jugador de campo	kantxako jokalaria	Partidako une jakin bakoitzean, jokatzen ari diren, hau da, jokalekura aterata dauden jokalaria, atezainak kenduta.
32	lanzamiento, lanzamiento a portería, tiro	jaurtiketa, atera jaurtitze	Jokalaria batek baloia kontrako aterantz zuzenduta botatzea, baloia belaunetik gorako edozein gorputz-atalekin bultzatuz, gola lortzeko asmoarekin.
33	lanzamiento a distancia	urruneko jaurtiketa	Urrutitik, hau da, oso atzetik, jaurtitzea; erasoko lehen lerroko jokalariek egindako jaurtiketak izaten dira normalean.
34	lanzamiento a pie cambiado	oin aldatuzko jaurtiketa	Hanka bermatuzko jaurtiketa-mota berezia, beso jaurtitzalearen aldeko oina lurrean bermatuta dagoela egiten dena.
35	lanzamiento al ángulo corto	angelu laburrera jaurtitze, hurbileko angelura jaurtitze	Jokalariaren besotik gertuen dagoen zutoinera egiten den jaurtiketa.
36	lanzamiento al ángulo largo	angelu luzera jaurtitze, urruneko angelura jaurtitze	Jokalariaren besotik urrunen dagoen zutoinera egiten den jaurtiketa.
37	lanzamiento alto	jaurtiketa altu, buru gaineratik jaurtitze	Buruaren gainetik egiten den jaurtiketa.
38	lanzamiento bajo	jaurtiketa baxu, behetik jaurtitze	Baloia duen jokalaria, baloia gerria baino behegortik botaz egiten duen jaurtiketa.
39	lanzamiento clásico	jaurtiketa klasiko	Erreferentzia gisa pase klasikoa hartuz, besoa armatzerakoan atzeranzko proiektzio handiagoa egiten da (enborraren tentsio handiagoa) eta gorputz-enborraren distortsio handiagoa eta bat-batekoagoa (abiadura handiagoa lortuz), jaurtiketa gauzatzeko unean.
40	lanzamiento con bote, lanzamiento picado	bote bidezko jaurtiketa, bote-jaurtiketa	Baloia atera iritsi aurretik lurrean bote bat emanaraziz botatzea.
41	lanzamiento de 7 metros	7 m-ko jaurtiketa	Defendatzen ari den taldeak jaso dezakeen zigor tekniko. Jaurtitzaleak, 7 m-ko marratik, aurrean atezaina beste inor ez dagoela, atera jaurtitzen du baloia.
42	lanzamiento de cadera, tiro de cadera	aldakako jaurtiketa	Aldaka paretik egiten den jaurtiketa, aurkaria ustekabean harrapatzeko asmoarekin.
43	lanzamiento de rosca	efektudun jaurtiketa, gurpildun jaurtiketa	Baliabidezko jaurtiketa-mota honetan, pronazio/supinazio mugimenduak ukondoaren toleste/luzatzearekin konbinatuta, efektu berezia ematen dio baloia jaurtitzeko. Eskumuturrak, toleste/luzatzearen bidez, baloia mugimenduari laguntzen dio.
44	lanzamiento desde 6 metros	6 m-ko marratik jaurtitze	6 m-ko marratik egiten den jaurtiketa.



# ESKUBALOI HIZTEGIA



Zkia.	GAZTELANIAZ	EUSKARAZ	DEFINIZIOA
45	lanzamiento desde 9 metros	9 m-ko marratik jaurtitze	9 m-ko marratik egiten den jaurtiketa.
46	lanzamiento directo	zuzeneko jaurtiketa	Edozein jaurtiketa libre egin edota edozein sake (erdikoa, albokoa nahiz atekoa) ateratzeko unean, zuzenean atera jaurtitzea.
47	lanzamiento en apoyo	hanka bermatuzko jaurtiketa, hanka-geldian egindako jaurtiketa	Jaurtiketa egiten den bitartean, gutxienez oin bat lurlean izatea.
48	lanzamiento en caída	erorizko jaurtiketa	Aurkaria gertutik gainditu nahian, baloia eskutik ateratzen den unea ahalik eta gehien atzeratuz gertatzen den jaurtiketa.
49	lanzamiento en proximidad	hurbileko jaurtiketa	Atetik hurbil egonik, hau da, 6 metroko marratik gertu, egiten den jaurtiketa.
50	lanzamiento en salto	jauzi bidezko jaurtiketa	Luze jauzi eginez jaurtitzea, hau da, jokalaria bere burua aurrerantz ahalik eta sakonera gehien emanaz eta ate aldera hurbilduz botatzea.
51	lanzamiento en salto con caída	jauzi-erorizko jaurtiketa	Baloia jaurti eta gero, jokalaria bere burua lurrera botatzen duenean.
52	lanzamiento en suspensión, tiro en suspensión	jauzi-gailurreko jaurtiketa, esekidurazko jaurtiketa	Jokalaria gora jauzi egin altuera bilatuz eta, jauziaren gorenean dagoenean, baloia botatzea, defentsako jokalarien gainetik pasatzen saiatuz.
53	lanzamiento rectificado	jaurtiketa zuzendu	Erreferentzia gisa pase zuzendua hartuz, jaurtiketa gauzatzeko unean enborraren flexio handiagoa egiten da beso jaurtizailearen kontrako alderantz, besoak eta eskuak gorputz-enborraren mugimendua jarraitzen duten bitartean.
54	lateral	alboko erasotzaile	3-3 eraso-sisteman, erasoko lehenengo lerroko bi aldamenetan jartzen diren jokalarietako bakoitza; bata eskuinean jartzen da, eta bestea ezkerrean.
55	línea central	erdiko marra	Jokalekua bi eremu berdinetan banatzen duen marra.
56	línea de 7 m	7 m-ko marra	Atearen erdiko puntuaren parean eta goleko marratik 7 m-ra, lerro horrekin paralelo, egiten den metro luzeko marra bat da, 'penaltiak' edo 7 m-ko jaurtiketak nondik bota behar diren markatzen duena.
57	línea de 9 m, línea de falta, línea de golpe franco, línea de puntos	jaurtiketa libreko marra, 9 m-ko marra	3 m luzeko lerro etena; atetik 9 m-ra egiten da lerro jarraituarekiko paralelo, eta bi ertzetatik 9 m erradioko zirkunferentzia-laurden banarekin errematatzen da, zentroak alde bakoitzeko ate-zutoinaren barruko eta atzeko ertzean jarritz.
58	pase en apoyo	hanka bermatuzko pase, hanka-geldian egindako pase	Oin bat gutxienez, edo baita biak ere, lurraren gainean daudela egindako pasea.
59	pase en rectificado	pase zuzendu	Beso jaurtizailearen kontrako alderantz egindako pasea; gorputz-enborra beso egilearen kontrako aldera tolesten da, eta beso jaurtizaileak keinua burutik ahalik eta gertuen egiten du.
60	pase en suspensión	jauzi-gailurreko pase, esekidurazko pase	Jokalari batek gora jauzi egin eta jauziaren gorenean dagoenean egindako pasea.



# ESKUBALOI HIZTEGIA



Zkia.	GAZTELANIAZ	EUSKARAZ	DEFINIZIOA
61	pasos	urratsak, pausoak	Jokalari batek, baloiarekin boterik egin gabe, hiru urrats baino gehiago emateagatik egiten duen falta.
62	pivote	pibot	3-3 eraso-sisteman, erasoko bigarren lerroan atetik hurbilen jartzen den jokalaria; blokeoak eta lerradurak egiteaz arduratzen da.
63	portero	atezain	Atea zaintzen egoten den jokalaria; besteek ez bezala, atezainak gorputzeko edozein atalekin uki dezake baloia, atearen eremuan baldin badago eta defendatzeko asmoa badu. Bera da ate-eremuaren barruan egoteko baimena duen jokalaria bakarra.
64	primero en defensa, defensa exterior, exterior	kanpoaldeko defendatzaile	6-0 defentsa-sisteman, kanpoen geratzen diren bi defendatzaileetako bakoitza, hau da, alboko marra eta hondoko marra elkartzen diren lekutik hurbilen geratzen direnetako bakoitza.
65	recepción en apoyo	hanka bermatuzko jasotze/hartze, hanka-geldian egindako jasotze/hartze	Oin bat gutxienez lurraren gainean dagoela egiten den jasotzea.
66	recepción en suspensión	jauzi-gailurrean jasotze/hartze, esekita jasotze/hartze	Jokalari batek gora jauzi egin eta, jauziaren gorenean dagoenean, baloia hartzea.
67	segundo en defensa, defensa lateral	alboko defendatzaile	6-0 defentsa-sisteman, kanpoko defendatzaileen eta erdiko defendatzaileen artean jartzen diren bi jokalarietako bakoitza; bata eskuineko aldean jartzen da, eta bestea ezkerrekoan.
68	suspensión	jauzi-gailur, esekidura, suspentsio	Gorantz egindako jauzi baten goreneko gailur-unea; jokalaria baloia hartu, pasatu edo jaurtitzeko egokiena izaten da.
69	tercero en defensa, defensa central	erdiko defendatzaile	6-0 defentsa-sisteman, erdian geratzen diren bi defendatzaileetako bakoitza; 7 m-ko marraren inguruan eta alboetako defendatzaileen ondoan geratzen da.
70	transición ataque-defensa	eraso-defentsa trantsizio	Defentsa ahalik eta azkarren antolatzea, jokalaria bakoitza bere tokian jarriz eta, ahal izanez gero, aurkarien kontraerasoa saihestuz.
71	transición defensa-ataque	defentsa-eraso trantsizio	Kontraerasoaren aldietako bat: baloiaren kontrola lortu ondoren, baloia beste taldearen area ingurura eta 7 m-ko marratik gertuen ahalik eta azkarren eramatea izango da fase honen helburua, sakontasun eta bertikaltasunik handiena bilatuz.
72	uno contra uno	bat baten kontra, bat baten aurka, buruz buru	Jokalari bat beste aurkari bakar baten kontra aritzea, joko-egoera batean.
73	vaselina	baselina	Baloia atezainaren gainetik pasatu nahirik egiten den jaurtiketa; baloiari ibilbide parabolikoa emanez egiten da, kontrako atezaina aurreratuta dagoela ikusten denean.